



HEZKUNTZA

PROIEKTUA

2017ko Ekainaren 25ean OOG-k onartua



AURKIBIDEA

0.- Sarrera

1.- Testuinguruaren azterketa

1.1. Eskola Txikiak

1.2. Alkizako Eskola

2.- Eskolaren printzipioak eta baloreak

3.- Eskolaren nortasun ezaugarriak

4.- Eskolaren helburuak

5.- Eskolaren Curriculumaren esparrua

5.1. Metodologia

5.1.1. Ardatz Nagusiak

5.1.2. Lanaren antolaketa

5.2. Ebaluazioa

5.2.1. Ebaluazioaren helburu nagusiak

5.2.2. Ebaluazioaren ezaugarriak

5.2.3. Ebaluaziorako estrategiak

5.3. Tutoretza

5.4. Aniztasunari erantzutea

5.4.1. Antolaketa

5.4.2. Eskolako Prozedura

5.5. Hizkuntzen erabilera eta tratamendua

5.6. Formazioa

6.- Antolamenduaren esparrua

7.- Hezkuntza Proiektuaren iraunaldia



0.- SARRERA

Badira bederatzi urte gure Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua onartu genuenetik. Gauza asko aldatu dira ordutik hona: eskolaren izaera, ikasle kopurua, herri honetako biztanleak eta euren bizibidea, hezkuntza alorreko aldaketak, eskola txikien egoera eta berrikuntza, ... Orduko bizirik irauteko nahia egi bihurtu dugu, bizirik eta indarturik gaudela ezin du inork uka.

Aldaketa guzti horiei aurre hartzeko garaia iritsi zaigu eta horri gure **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua** berrituz ekin nahi diogu.

Gure izaera eta gure eskolako etorkizuna berriro definitzeko unea dugu. Garrantzitsua da nor garen, nolakoak garen, nolako heziketa bultzatu nahi dugun, ikasleak zein baloreetan hezi nahi ditugun, gure haurren heziketak zein printzipio eta helburuak izango dituen zehaztea.

Beraz hori guztia jasotzen duen dokumentua da esku artean duguna; alde batetik hezkuntzaren antolamendu eta plangintzaren ardatz nagusia da eta, beste aldetik, koherentziaz josten ditu egiten ari garen proposamen, plan, esperientzia eta programa guztiak.

1.- TESTUINGURUAREN AZTERKETA

1.1. ESKOLA TXIKIAK

Alkizako Herri Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua dugu hau, baina gure antzeko izaera eta borondatea duten beste hainbat eskolekin batera mugimendu baten parte sentitzen gara. Beraiekin batera egin dugu gaurdainoko bidea eta horrela jarraitu nahi dugu, elkarrekin gehiago baikara eta elkarlanean indartsuago.

Eskola Txikiak herri txiki eta auzoetan kokatuta dauden eskolak dira. Naturarekin harreman zuzena izateko aukera paregabea dute, eta gaur egun, biztanleriaren bizitzeko erak anitzak izan arren, landa eremuak duen garrantzia sumatzen da toki horietan.



Eskola Publikoak dira, Hezkuntza Sailaren administraziopean daude eta herriko edo auzoko eskaintza bakarra dira. Eskola euskaldunak dira, landa eremu horietako askotan euskara baita oraindik ere eguneroko hizkuntza nagusia. Euskal kulturaren hainbat alderdi oso errotuak daude herri eta auzo txiki horietako askotan.

Kasurik gehienetan, 2 urtetik hasi eta 12 urtera arteko ikasleak hartzen dituzte eskoletan, nahiz eta, bestelako kasuak ere badiren. Gela berean zenbait adinetako ikasleak elkartzen dira eta harremanak oso aberatsak izan ohi dira eta elkarreragina eta kooperazioa era naturalean sustatzen dira.

Eskola Txikia gaur egungo eskola da. Gainera, eskola bakoitza komunitate txiki bat da, non ikasle bakoitzak, bere ikasketen protagonista izanik, besteekin batera eta elkarreraginean ikasten duen.

Eskola Txikietako irakasleek eta gurasoek hartu eman estua dute. Eskola hurbil sentitzen dute herritarrek. Udalaren inplikazioa ere oso garrantzitsua da, herri eta auzo txiki hauen eguneroko bizitzarako eskola elementu garrantzitsua baita.

Pertsonen arteko harremanak bultzatzen dituzten agenteen artean eskola erakunde garrantzitsuenetako bat izan ohi da. Herri txikietan, eskolak integrazioarako eta gizarte inklusiorako bidea errazteko lan biziki garrantzitsua egiten du.

Eskola Txikien arteko harremanak ugariak dira eta taldearen izaera indartzeaz gainera, zenbaitetan, elkarlanerako bidea egiten laguntzen du.

1.2. ALKIZAKO ESKOLA

Alkiza 350 inguru biztanleko herria da; landa eremuan dago eta harreman zuzena du naturarekin. Gaur egun, biztanleriaren ekonomia iturriak anitzak dira, Alkizatik eta baserriko ekonomiatik kanpo kokatzen da gehien-goia.



Horrek eta azken urteetan Alkizara etorritako biztanle berrien eraginak kale giroa nabarmen igo duen arren baserri giroarekin eta landa eremuarekin lotura handia sumatzen da.

Urte hauetan ere alkizar generazio batek aukera izan du herrian bertan bizitzen gelditzeko, haurrak izan ditu eta Alkizako herri txikiak bizitasuna irabazi du.

Egoera horren ondorioz eskolako ikasle kopurua izugarri hazi da. Aldi berean eskolako guraso talde bat ikasle ohi izaera izateak eskolari indar handia eman dio. Irakasle kopurua ere neurri berean hazi da.

Eskolako eraikina plazan bertan egoteak balore handia du, irekia, gertukoa egiten du. Herriko plaza jolastokia da frontoiarekin batera, herriko parkea ikasle parkea bihurtzen da.

Gure eskola, beste eskola txiki gehienak bezala, herriko eskaintza bakarra da. Eskola, herria bezala, euskalduna da, gure eremuan gazteleraren presentzia handitu den arren, oraindik orain, euskara da eguneroko hizkuntza.

Euskal kulturaren hainbat alderdi errotuak daude herrian, besteak beste, herri kirolak, esku-pilota, bertsolaritza, kantagintza. Beste herrialdeetako jendearen presentzia urria da baina hala ere, horrek, munduko beste ezagutza batera ireki du Alkiza.

2 urtetatik 12 urte bitarteko herriko haurrak jasotzen ditu eskolak. Adin desberdinetako ikasleak gela berean izatea balore bezala bizi dugu, adin aniztasunak, beste aniztasunekin batera, pertsonen garapenean jokatzen duen papera aberasgarria dela pentsatzen baitugu. Hau dela eta, harreman mundua oso aberatsa da, elkarreragina eta kooperazioa errazago sustatzen dira.



2.- ESKOLAREN PRINTZPIOAK ETA BALOREAK

Gure eskolak ikaslea eta bere zorientasuna du oinarri

Ikaslea da batzen gaituena: gurasoak, irakasleak zein herritarrak elkarlanean aritzera bultzatzen gaituena.

Beharrezkoa da beraz gure eskolara datozen ikasle guzti guztien garapen afektibo, sozial, intelektual eta fisikoak ahalik eta gehien garatzeko moduko bideak aurkitzea. Gaitasun hauen garapena ikasleen zorientasunerako bidetzat ikusten dugu. Garrantzitsua da norbanako bakoitzak arrakasta izatea, bizitzako alor guztietan dituen indarguneak areagotuz eta dituen ahulguneak gutxituz edo onartuz.

Bide honetan, ikasle guztien garapen zoriotsua lortzeko ahalegina, komunitate honetako guztion ardura izango da.

Gure eskola ikasle guztien eskola da

Ikasle bakoitzak izateko, pentsatzeko eta adierazteko dituen modu ezberdin oro onartu eta errespetatzen da, bakoitzak bere lekua aurkitzeko aukera eskainiz. Gure eskolan ez da inolako bazterkeriarik onartuko eta gizarte elkarguneak sortzeko helburuz arituko gara.

Gure eskolak aniztasuna aberastasun gisa hartzen du

Gure eskolak ikasleen aniztasuna (adina, jatorria, izaera,...) aberastasun gisa bizi du. Ikasleen adierazpen era guztiak baloratu eta aprobetxatzen ditu eta ikasleen interesak asetzen laguntzen du.

Gure eskola konpentsatorioa da

Garrantzitsua da eskolak gizartean parte hartze aktibo bat izateko beharrezkoak izango dituzten oinarri kultural eta gaitasunak **ikasle guztiei** ematea. Horretarako eskolak ikasleek izan ditzaketen hutsuneak gainditzen lagunduko du eta arrazoi anitzen ondorioz izan daitezkeen ezberdintasunak konpentsatuko ditu.



Eskolak, komunitatearekin batera jarduten du

Eskola Komunitatea subjektu askoz osatua dago: ikasleak, gurasoak, irakasleak, herritarrak,... Eskolan parte hartzen dugun guztion interakzioa aberasgarria dela pentsatuz, komunitate guztiaren elkarrekintza bideratuko duen antolaketa bat egitea hobesten dugu, eskola ireki eta parte hartzailea eratuz, herriarekin eta herritarrekin batera.

3.- ESKOLAREN NORTASUN EZAUGARRIAK

Alkizako eskolak honako berezko ezaugarriak ditu eta ezinbestean bere hezkuntza proiektua garatzean presente edukiko ditu:

- ✓ Eskola publikoa da, Hezkuntza Sailaren administraziopekoa. Hori ez da ordea publikotasuna ematen dion marka bakarra; besteak beste, zerbitzu publikoa, aukera berdintasuna, inklusioa, hurbiltasuna, aniztasuna, kohesio soziala, laizismoa ere esan nahi duelako publikoa izateak.
- ✓ Eskola euskalduna da. Euskaraz bizi eta euskaraz hazi nahi duen eskola gara. Alkizak bertako hizkuntzan bizitzeko hautua egiten du eta eskolak ikasteko eta erabileran aurrera egiteko bide horretan paper garrantzitsu bat jokatzen du.
- ✓ Gure geletako adin aniztasuna aberastasun iturri bezala kontsideratzen dugu. Adin ezberdinetako ikasleen bateratzeak bilatu egiten dira, etapa zein ziklo arteko taldekatzeak. Honi esker, aniztasuna, malgutasuna, "tempo" ezberdinak, berdinen arteko ikasketak, ... naturalak dira gure ikasle eta irakasleentzat.
- ✓ Gure eskola, eskola txikia den heinean, oraindik orain, "leku atsegin bat da, jendeak elkar ezagutzeko lekua, elkarrekiko ardura eta kezkarako aukera ematen duena, eztabaidarako parada eta ikasleak ezagutzeko aukera baliatzen duena" (C. Freinet).



- ✓ Gure eskolak herri honekiko pertenezia edo parte-hartze sentimendu indartsua bilatzen du. Atxikimendu eta herriaren ezagutza on bat izateak ikasleengana ondo heltzea errazagoa eta hobea egingen du.
- ✓ Eskola honetan ikasle guztiak irakasle guztionak direla sentitzen dugu eta euren garapenarekin konprometituak sentitzen gara, ikasleak eskolan sartzen direnetik amaitu artean.
- ✓ Eskolaren ingurune hurbila (basoa, mendia, natura,...) hezkuntza baliabide esanguratsua da.
- ✓ Gure eskolak paretetatik kanpora dauden beste sistemekin kontaktuan dago, familiak, herri erakundeak, elkarte eta hezkuntza ez formalean eragin dezaketen talde ezberdinekin hartu eman eta elkarlanean arituz.
- ✓ Konstruktibismoa da gure eguneroko jardunaren oinarri psikopedagogikoaren markoa. Hau da, ikasleak dira bere heziketa prozesuaren protagonistak; horrela bere aurre ezagupenetatik abiatuta, gertuko arazo egoerak planteatuz, une oro eraikitzen dute ezagutza esanguratsua.
- ✓ Hezkuntza inklusiboa jarrera bat da eta modu horretan bizi dugu.

4.- ESKOLAREN HELBURUAK

Gure ikasleen ongizate emozionala garatzeko eta neurtzeko estrategiak zehaztea eta egunerokotasunean erabiltzea:

- ✓ Ikasle guztiak eskolara lasai eta gustura datozen aztertuz eta bakoi-tzak berea duen bikaintasuna aurkitzen duen behatuz.
- ✓ Irakasleekiko dituzten harremanak konfiantzazkoak eta hurbilak izatea bermatzeko ikasleen ingurune hurbila ezagutzuz eta baloratuz.



- ✓ Ikasle guztien gaitasunen garapena bermatuz beraien nahiak, gustuak, beharrak eta afizioak entzunez edota euren adierazteko modu desberdinei adi egonez.

Eskola ikasleentzako toki atsegina eta segurua izan dadin, elkarbizitza- tzarako estrategiak egunerokotasunean erabiltzea

- ✓ Gatazken konponbiderako eta elkarbizitza sustatzeko estrategiekin jarraituz.
- ✓ Besteenganako errespetuan heziz, elkarlanean eta lankidetzan oinarrituriko heziketa bultzatuz.
- ✓ Ezberdintasun sozial eta ekonomikoek sor ditzaketen egoerei aurre egiteko estrategiak eta ekintzak pentsatuz eta gauzatuz.
- ✓ Generoen arteko desoreka baztertuz eta hezkidetzaren berdintasunezko jarreraren inguruan sentsibilizatuz.

Ikasleak egungo eta etorkizunerako bizitzarako prestatzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea

- ✓ Bakoitzaren ezagutzetatik abiatuz, sormena eta esperimendazioa medio, ikasle guztiek euren bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak ahalik eta gehien garatuz eta aprobetxatuz.
- ✓ Oinarrizko gaitasunak ardatz hartuta, prestakuntza akademiko egoia landuz.
- ✓ Ingurune hurbila, natura, basoa baliabide pedagogiko gisa modu esanguratsuan erabiliz.
- ✓ Herria eta eskola gure ikasleen ikaste beharretarako aprobetxatuz, ikasleen ikaste prozesua espazio errealean gerta dadin, hormetatik kanpo ikasteko aukera ematen duen antolaketa bultzatuz.
- ✓ Geletako ateak zabalduz eta ikastalde ezberdinen arteko interakzio eta kooperaziorako beharrak sortuz, ikasturtean zehar egiten diren lan dinamikak edota proiektuak konpartituz.



- ✓ Ikasle guztiak irakasle guztionak izateko moduko estrategiak, antolaketa eta ekintzak pentsatuz, gauzatuz eta lortu diren emaitzak aztertuz.

Eskola Komunitatean (ikasle, irakasle, guraso eta herritar) komunikazioa, interakzioa, konfiantza eta heziketa ikuspegiaren koherentzia areagotzea.

- ✓ Eskola elkarlanean eta konfiantzan egiten dugun proiektua dela harrotasunez sentituz.
- ✓ Guraso eta herritarrak eskolarekin gustura senti araziz, partaidetza bilatuz, harremanak sendotuz eta eskolak bultzatzen duen ikas prozesuan parte hartzaile aktibo bihurtuz.
- ✓ Guraso eta irakasleen arteko konfiantza, komunikazioa eta errespetua lortzeko erabiltzen ditugun ekintzekin jarraituz eta berri batzuk pentsatuz eta erabiliz.

Euskal kultura, hizkuntzarenganako errespetua eta garrantzia indartzea eta herriko ondarea eta baliabideak balorean jartzea

- ✓ Euskara eta euskal kulturaren erabilera, maitasuna, errespetua eta garrantzia indartzeko estrategiak bultzatzen jarraituz.
- ✓ Herriko ohiturak, bizimoduak, ondarea eta baliabideak ezagutuz eta estimatuz.

Irakasle guztiontzat esanguratsuak eta lagungarriak izango diren formazio moduak antolatzea

- ✓ Erronka berriak, kezkak eta hobetzeko alderdiak lantzeko helburuz, prestakuntza modu ezberdinak bultzatuz.
- ✓ Irakasle taldeak formatzeko irakasleen interesak, ilusioa eta parte hartzea sustatuz.
- ✓ Lan talde eraginkorra lortzen dugun edo ez aztertuz eta baloratuz.



- ✓ Irakasleen arteko harreman egokiak bultzatuz.

5.- ESKOLAREN CURRÍCULUMAREN ESPARRUA

5.1. METODOLOGIA

5.1.1. ARDATZ NAGUSIAK

Ikasleen eskolako ibilbidean irakasleok ildo jakin batzuk jarrai ditzagun metodologiako ardatz nagusi batzuk adostasunez zehaztea beharrezkoa da. Hauek dira guk lehenesten ditugunak.

Ikuspegi konstruktibista

Konstruktibismoa ikaste prozesua azaltzen duen teoria pedagogikoa da. **Ikaslea bera da bere ikaskuntza-prozesua eraikitzen duena**; horretarako, ikaslea bere aurreko jakintza eta trebezietatik abiatzen da jakintza berria ikastera. Hori egin ahal izateko beharrezkoa da haurra ikaste prozesu hori ahalbidetuko duen egoera esanguratsuetan eta ezberdinetan kokatzea.

Garrantzitsua da ikasleen interesa piztuko duten egoerak pentsatzea, horri esker lortzen baita ikaslearen ikaste prozesua benetan esanguratsua izatea eta jakintza, abilezia edo gaitasun berriak barneratzea. Horrela, **irakaslearen eginkizun** nagusia **ikasleek ikasi beharrezkoa barneratzeko egoera didaktikoak diseinatzea da**.

Ikaslearen autonomia garatzea guztiz beharrezkoa da, bai bere ikaste prozesua normaltasunez garatzeko, baita ikasten ikasteko gaitasuna ahalik eta gehien garatzeko ere. Horretarako, **ardura, autonomia** eta **konfiantza** aldi berean eskaini eta sentiarazi behar dizkiogu bere ikaste prozesuan: **konfiantza**, egingo duen hori baliagarria eta egokia izango dela sentiaraziz; **autonomia**, bere kabuz eta bere moduekin egiten onartuz eta utziz; eta **ardura**, eskatutako lanaren erantzukizuna ulertaraziz.



Aniztasuna aberastasuna da

Aniztasuna aberasgarria dela pentsatzen dugu. Hori dela eta, ikasleen berezitasunak indartzen saiatzen gara eskolan, norbanakoak izan dezakeen edozein gaitasun beste edozeinen parean jarriz.

Beharrezkoa da, beraz, ikasle guztiak desberdinak direla kontuan hartzea, eta aldi berean, biziko dituzten ikaste prozesu guztiak ere desberdinak izango direla ulertzea. Horregatik, ikasleen aniztasun horri egoera anitzak eskaintzen dizkiogu, egoera didaktiko ugari eta desberdinak, gaitasun ezberdinak garatzeko modukoak, eta garrantzitsuena dena, ikasle guztiek ikasiko dutela eta garapenean aurrera egingo dutela bermatzeko modukoak.

Interakzioa beharrezkoa da

Esana dugu ikaslea bera dela bere ikaste prozesua eraikitzen duena. Hori gertatzeko interakzioa beharrezkoa da. Interakzio hori hiru esparruetan eman behar da:

Hasteko, **ikaste objektuarekiko** (ikasten ari denarekiko) interakzio bat ematea guztiz beharrezkoa da. Hori lortzeko beharrezkoa da ikaslea ikasten ari den jakintza, abilezia edo gaitasuna erabiltzeko moduko egoerak pentsatzea eta antolatzea. Interakzioa benetan gertatu dadin, ikasi beharrezkoa gertukotik abiatuz prestatzen dugu, ikaslearen ingurunean edo hurbilean dagoenetik abiatuz. Egoera didaktiko horiek garatzerakoan esperimentazioa eta manipulazioa oinarritzkoak dira.

Bigarrenik, **ikasleen arteko interakzioak** garrantzi handia dauka. Elkarrengandik eta elkarrekiko interakzioan ikasten dutenak eragin handia du euren garapen prozesuan. Horregatik, adin ezberdinetakoak diren ikasleen arteko taldeak ditugu eskolan, baina, aldi berean, ikastaldearen arteko interakzioa ere bilatzen dugu.

Amaitzeko, **ikasleak irakasleekin** izango duen interakzioa ere zaindua, prestatua eta aberasgarria izan behar dela pentsatzen dugu. Irakasleak



izan beharko du haurrei erronkak planteatuko dizkien pertsonetako bat, euren garapenean aurrera egiteko biderik onenak deskubrituz.

Kooperazioa beharrezkoa da

Aipatu dugun interakzioa eraginkorra izan dadin, lanaren planteamendu kooperatiboak egin behar ditugu. Jarrera kooperatiboak garatzea beharrezkoa da gaurko gizarterako, elkarlanean eta elkarreraginean egindako planteamenduek indartu egiten baikaitu.

Kooperazio hau ikasgela eta herria elkartuz ere egin nahi dugu. Herri-tarrekin, auzokideekin, familiekin ere kooperatzeko eta interakzioa sortzeko moduko bideak bilatzen ditugu. Ikasketa prozesuan familiaren eta herritarren parte hartzea bultzatuko dugu (geletara etorriz, galdekizunak betez, beraien jakinduria azalduz...). Era berean egingo ditugun lanak ikas komunitateari eta herriari zabaltzeko ahalegin berezia egingo dugu (komunitateari aurkezpenak eginez, erakusketak planteatuz, herriko aldizkarian publikatuz, irratia erabiliz, ...).

5.1.2. LANAREN ANTOLAKETA

Ardatz nagusi hauek jarraitu nahirik gelako **lana antolatzeko erabiltzen ditugun irizpide nagusiak** ondokoak dira:

- ✓ Lan egiteko era irekia, malgua eta beharretara moldagarria. Abaniko zabal baten antzekoa, ikasleen garapena bultzatzeko bideak bilatzen dituen etengabe, aldaketetara eta ikasleen beharretara malgutasunez moldatzen dena.
- ✓ Ikasleen interesguneei edota eurengan interesa pizteari garrantzi berezia ematen zaio. Egiten dena ikasleen motibagarri izatea oinarritzat ikusten da (nork bere lanerako desio duen hori, gustukoa izatea, gustura aritzea, nahiz eta askotan esfortzua eskatu).
- ✓ Ikasleen parte hartze aktiboa eta protagonismoa bilatzen da.



- ✓ Esperimentazioa, manipulazioa, ikas objektuarekiko interakzioa, ... oinarrizkoak direla sentitzen dugu eta egoera didaktikoak hori bideratzera eramatean bilatzen da.
- ✓ Elkarrekiko interakzioa eta inplikazioa era irekian eta adostasunez ematen da. Interakzioa era naturalean eman daiteke, baina, bilatu ere egiten dugu: ikasleen artean, gelen artean, irakasleen artean, guraso eta irakasleen artean ...
- ✓ Berrikuntza pedagogikoekin adi egotea bilatzen dugu.

Irizpide nagusi hauek kontutan hartuta, **curriculumaren antolaketa** geure beharretara egokitzen dugu.

Ikasleekin lantzen ditugun proiektu edo lanen abiapuntua modu haue-tan egiten dugu:

- ✓ Zenbait kasutan, irakasleok aurrez diseinatzen ditugu sekuentzia di-daktikoak.
- ✓ Beste batzuetan, ikasleen interesetatik abiatzen gara eta irakasleok egoera didaktikoak sortzea lortu behar dugu.
- ✓ Beste batzuetan, irakasleok gai bat planteatzen dugu eta ikasleek lanaren ildoak markatzen dute: Zer egin? Zertarako egin? Nola egin?
- ✓ Eta beste batzuetan, azken xede, helburu edo egiteko bat zehazten dugu eta hori lortzeko bidean egin beharreko lanak egoera didaktiko bihurtzen ditugu.

Halere kasu guztietan honelako lan eskema jarraitzen dugu:

- ✓ **Proiektua** edo **Arazo Egoera** pentsatu, eztabaidatu, funtzionalita-tea bilatu... (irakasleen artean edo ikasleekin batera)
- ✓ Zer egingo dugun azaldu ikasleei edo elkarrekin erabaki
- ✓ Ikasleek zer dakiten ikusi eta jakin mina sortu, zer jakin nahi dugun ikertu.



- ✓ Nola garatuko dugun pentsatu
- ✓ Informazioa:
 - Bilatu
 - Aztertu
 - Aukeratu
 - Konpartitu
- ✓ Ekoiztu, sortu
- ✓ Berrikusi
- ✓ Azaldu, gizarteratu (familiei, herritarrei, beste eskolei ...)

Era berean Hezkuntza Proiektu honetako helburuetan aipatzen dugu gure ingurune hurbila, natura, basoa baliabide pedagogiko gisa modu esanguratsuan erabiltzeko borondatea dugula eta gure lan antolaketan espazio berezi, ireki eta berri bat egingo diogu "baso eskolari".

Guzti hau aurrera eramateko, irakasleon rola ere egokitu egin behar da eta honako hauek dira esanguratsuenak:

- ✓ Erronka sortzailearen rola
- ✓ Laguntzailearen rola
- ✓ Gidariaren rola
- ✓ Behatzailearen rola
- ✓ Adituaren rola
- ✓ Pertsona helduaren rola

5.2. EBALUAZIOA

Gure eskola "guztion eskola" izatera heltzeko oinarrizko tresnetako bat da ebaluazioa.



5.2.1. EBALUAZIOAREN HELBURU NAGUSIAK

- ✓ Ikasleen ikaste prozesua erregulatzea
 - Ikasteko erabiltzen dituen estrategiak aprobetxatzea
 - Irakasleon laguntza ikaslearen beharretara egokitzea
 - Zein laguntza behar duen jakitea
- ✓ Ikaste irakaste prozesua hobetzea
 - Eskolan erabiltzen diren lan dinamikak ikasle guztien beharretara egokitzea
 - Ikasleen aniztasuna garapen pertsonal zein kolektiborako aprobetxatzea
- ✓ Ikaslea ikaste prozesuaren zein fasetan dagoen jakitea
 - Ikasleen ezagutza on bat lortzea
 - Aurrera egiteko behar dituen laguntzak ezagutzea
 - Bakoitzaren garapen erritmoa errespetatzea

5.2.2. EBALUAZIOAREN EZAUGARRIAK

Gure eskolan garatuko den ebaluazioak ondoko ezaugarriak bete beharko ditu:

- ✓ Ikaste prozesuaren oinarrizko osagai izatea
- ✓ Pertsonalizatua izatea
- ✓ Inklusiboa izatea
- ✓ Ikaslearen gaitasunak (eta zailtasunak) azalertzeko gai izatea
- ✓ Anitza izatea eta aniztasuna indartzeko bide izatea
- ✓ Ikaslearen eta irakaslearen arteko interakzioan egindakoa izatea



5.2.3. EBALUAZIORAKO ESTRATEGIAK

- ✓ Etengabeko behaketa eta ikusitakoaren erregistroa egitea
- ✓ Ikasle guztien jarraipenerako erregistro karpeta
- ✓ Auto-ebaluaziorako eta ko-ebaluaziorako estrategiak
- ✓ Irakasleok geure jardunaren ebaluazioa egiteko estrategiak erabiltzea

5.3. TUTORETZA

Gure eskolan ikasle guztiak irakasle guztionak direla sentitzen dugu. Beraz, tutoretza lana egitea irakasle guztion ardura izango da eta horretarako irakasleen arteko hausnarketak, elkarrizketak, behaketak eta erabakiak elkarlanean hartuko ditugu.

Halere irakasle guztion arteko koordinazio egokia lortzeko eta ikasleak banaka eta talde barruan bereziki jarraitzeko, talde bakoitzak irakasle tutorea izango du. Tutore honek gurasoen harrera eta harremanak bideratuko ditu.

Tutoretzari buruzko xehetasunak Tutoretza Planean jasoko dira.

5.4. ANIZTASUNARI ERANTZUTEA

Esana dugu aniztasuna aberastasun gisa ulertzen dugula baina ezin dugu ahaztu arreta berezia merezi duten zenbait kasu sortzen direla tarteka. Kontuan izanik eskolan dauden ikasle guztiak irakasle guztion ardurapean daudela, eskola mailako antolaketa eta prozedura zehaztu beharrean gaude, egoera bereziak sortzen diren kasuetan ikasleek jasotzen duten arreta eraginkorra izan dadin.

5.4.1. ANTOLAKETA

Irakasle guztiok ikasle guztion irakasle izanik, guztioi dagokigu haurrek izan ditzaketen ikasteko behar bereziak antzematea. Ardura hori urtez urte



eskolako haur guztiekin garatzen joango gara, nahiz eta, ikasle bakoitzaren garapenaren zaintzaren arduradun nagusia haur horren tutorea izan.

Hartzen ditugun erabakiak irakasle guztion artean adostuak izatea lortu behar dugu, izan ere, zailtasunak dituzten ikasleei etorkizunean emango zaien arreta zer nolakoa izango den zehazteko adostasuna lortzeak berebiziko garrantzia hartzen baitu.

Horretarako, irakasle guztiok koordinatzeko denbora hartuko dugu. Denbora horretan ikasleekin bizitako esperientziei buruz arituko gara eta zerbait aipagarri balego, eman beharreko pausoak zehaztuko ditugu.

Antolatuko dugun laguntza eskolak ematen dizkigun aukerak malgutasunez aprobeztatzeko egingo dugu, bai taldekatze aldetik, baita ikasleen behar eta erritmoen aldetik ere.

Laguntzen diseinurako oinarrizko informazioa emango digu familiak, bai ikaslearen egoerari dagokionean, baita etxean bizi dutenaren inguruan ere. Familiarekiko tratuan kontu handiz arituko gara, bakoitzaren esparrua errespetatuz eta ikasleari buruzko iritzien azalpenak ondo neurtuz.

5.4.2. ESKOLAKO PROZEDURA

Esan bezala, eskolako prozedura irakasleen arteko elkarrizketetan eta familiarekiko harreman estuan oinarrituko da. Hortik lortuko dugu protokolo ofizialak hasi edo ez hasi erabakitze behar adina informazio.

Behar bereziak ikusten ditugunean, irakasle on arteko koordinazioan landu beharko dira. Bertatik erabakiko dira aurrera begira egin beharreko pausoak. Behin behar bereziak benetako direla egiaztatzen dugunean ohiko prozedurak hasiko dira martxan.

5.5. HIZKUNTZEN ERABILERA ETA TRATAMENDUA

Gure eskolak, gure herriko ama hizkuntza nagusia den heinean, euskarara du ardatz. Bera maitatu, errespetatu eta eskolan dauden beste hizkuntzekiko errespetuzko jarrera baikorra bultzatuko du.



Euskara ezagutu eta egoki erabiliko dituen pertsonak hezteaz gain, kontaktuko hizkuntza dugun gaztelerako zein atzerriko hizkuntzaren beharrezko ezagutza eta erabilera gaitasuna lortu dezaten egingo du lan.

Eskolan lantzen ditugun hizkuntzen irakaskuntza zein erabilerari dagozkien alderdiak Hizkuntza Proiektuan jasoko dira.

Halaber, hizkuntzetan irakurketa oinarrizko gaitasuna izanik, honen inguruko xehetasunak zein irakurzaletasuna bultzatzeko estrategiak Irakurketa Planean bilduko dira.

5.6. FORMAIZIOA

Helburuetan jarria dugu irakasle guztiontzat esanguratsuak eta lagungarriak izango diren formazio moduak antolatzea dela helburuetako bat. Beraz erronka berriak, kezka eta hobetzeko alderdiak lantzeko formazio modu ezberdinak bultzatuko ditugu. Hala nola:

- ✓ Eskolako barne hausnarketan eta elkarrizketan oinarritutako formazioa:
 - Banakako auto formazioa.
 - Klaustro mailakoak (adituen laguntzaz, talde hausnarketak bultzatuz ...).
- ✓ Eskola Txikien arteko komunikazio eta koordinaziotik sortutako formazioa:
 - Geure arteko hausnarketak eta egiteko moduak konpartituz.
 - Formazio saio bereziak, hitzaldiak ... antolatuz.
- ✓ Berritzegunearen eskaintza aprobetxatuz:
 - Mintegiak, hitzaldiak...
- ✓ Gurasoentzako formazioa antolatuz:
 - Talde hausnarketa eta elkarrizketa bultzatuz.



- Guraso eskolak, formazio saioak, hitzaldiak ... antolatuz.

6.- ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA

Gure eskolak D ereduko 2-12 urte bitarteko hezkuntza eskaintza du, hau da, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Hezkuntzaz aparte jangela zerbitzua ere badugu, eskolatik kanpo herriko taberna batean eskaintzen dena, bertan egindako janariarekin hornitzen dena. Eskolatik bi kilometro baino urrunago bizi direnentzat garraio laguntzak ematen dizkio administrazioak. Herrian bertan eskolaz kanpoko ekintza ugari eskaintzen dute udalak eta guraso elkarteak.

Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketaren inguruko xehetasun gehiago eskolan daukagun Antolamendurako eta Jardueratarako araudiak (AJA) jasotzen ditu.

7.- HEZKUNTZA PROIEKTUAREN IRAUNALDIA

Eskuartean dugun Hezkuntza Proiektua 5 urtean behin errebisatu eta berritzeko aukera izango da.

Urtero, ikasturtea hastearekin batera, honi buruzko gogoetak eta izan daitezken zalantzak argitzeko parada hartuko da eta urteko planean jasoko dira bere garapenerako erronkak eta estrategiak.

Eskolara sartzen diren guraso berriekin azalpen bereziak egingo dira, ahalik eta ondoen uler dezaten eskolako ardatza.